

ENPRESAK. Joxe Mari Kortaren hilketaz geroztik, Jose Alberdi izan da elkarteko burua

Jose Etxeberria da Adegigipuzkoako patronaleko presidente berria

Adegigiko lehen presidenteordea eta batzorde betearazleko partaidea izan da Etxeberria

Erredakzioa | BILBO

Gipuzkoako enpresarien elkarteko errektore kontseiluak Jose Etxeberria izendatu du presidente. Joxe Mari Kortaren hilketaz geroztik, Jose Alberdi aritu da Adegigiko lan horietan urtebetez.

Adegigiko presidente berriaren aurkezpena, antolatutako ekitaldi batean egin zuten. Karguaren arduradun berriak, Alberdik bere gain hartutako erantzukizun guztiak eskertu zizkion. Etxeberriaren ustez, garai korapilatsu honetan Gipuzkoako enpresariak elkarganatzearaz gain, gizarteari ezagutzera emandako irudia indartzea lortu du.

Adegigiko errektore kontseiluak Alberdik burutako lana ere eskertu zuen. Errektore kontseiluaren ustez, presidente ohiak, azken urtean erakundearen jardura bultzatzen lagundu du. Gipuzkoako enpresarien elkarteko buru izan den bitartean, joan den urtean ospatutako bilera orokorrean onartutako egitekoak aurrera eraman ahal izan dituzte.

Joan zen ekainaren 7an Adegigiko partaideek bilkura orokorra ospatu zuten eta bertan, Alberdiren proposamenez, Joxe Mari Kortaren irudiari omenal-



JAVIER ECHEZARRETA / EFE
Jose Etxeberria Adegigiko presidente berria atzo Miramonen, aurreko presidente Jose Alberdirekin.

dia egin zioten. «Etorkizunari begirada bat» izenburupean erakunde-adierazpen bat egin zuten eta hazkunde ekonomikoak, enpleguak eta EAEko bizi-mailak izandako gorakada egiaztatu zuten bertan Gipuzkoako enpresari guztiek. «Bakea lortuz, Europa mailan Euskadi aurrerakoi bat eraiki ahal

izatea», aldarrikatu zuen Gipuzkoako enpresarien elkarteak.

Ibilbide luzea

Orain arte, Jose Etxeberria, batzorde betearazlearen barruan, Adegigiko lehen presidenteorde gisa aritu izan da. Enpresen kudeaketaren arlo ezberdinak ezagutzeaz gain, esperientzia

handiko gizona da. Lan munduan egin duen guztia, Urache sozietate mugatuaren ingurukoa izan da.

Egun, enpresarien presidentea izateaz gain, aholkularien ordezkaria ere bada. Uracheren jardura erauzketa, eraldakuntza eta marmolaren merkaturatzearen ingurukoa izan da.

LABORANTZA. Nekazari sindikatuak oroitarazi du ez dituztela gainerako aldarrikapenak ahantziko

«Laborantza Ganbera Euskal Herriari orain» kanpaina abiatuko du ELBk

Aitor Renteria | BAIONA

«Laborantza Ganbera Euskal Herriari» kanpaina abiatuko duela iragarri zuen atzo ELB sindikatuak. «Helburua ez da kanpaina hau egitea. Helburua Euskal Herriko Laborantza Ganbera lortzea da. Ez daitezela tronpa» adierazi zuen atzo Mixel Berhokoirigoin ELBko bozemaileak. Ez dute arrazoirik ukatzeko eta lortu arte ez gara geldituko» gaineratu zuen.

Eric Dolosorek ELBren ibilbidearen oroigarria egin zuen. «Hastapenean hemen kalitatezko produktuak egiteko borrokatu ginen. Ondoren hauteskundeetara joan eta FDSArekin berdindu. Halere, Pauen baz-

tertu gintuzten» laburbildu zuen Dolosorek. «Gero Euskal Herriko 90 auzapezen sostengua erdietsi genuen, 1.500 pertsona Baionako manifestaldian. Baina deus ez da mugitu» gaitzetsi zuen, oroitaraziz «dekretu soil batez sor daitekeela Euskal Herriko Laborantza Ganbera».

Urtarrileko hauteskundeetan «%51 ukan genuen, EHLGk %51ren sostengua du, gehien-go gara adierazi du ELBko elehunak, gaineratuz «ezin da argudiatu, Prefetak egin zuen bezala, departamenduak hegoaldeko bortizkeria hona ekar dezakeela». ELBko ardura-dunak «%20 izan, %51 izan, horrek ez du deus aldatzen Pauen, beti baztertuko gaituzte».



ANGELA MEHIAS
ELBko ordezkariak atzo Baionan.

ELBko ordezkariak 2 hilabetez kanpaina abiatuko dutela iragarri zuten. ELBren Biltzar nagusitik goiti hautetsien sostenguak bilduko dituzte. «Orain auzapezen bi heren daude gurekin, Jean Grenet Baionakoa barne. Kanpaina bukatzean hiru laurdenek sostenga gaitzaten

da gure helburua» erran du Christian Harluxetek. Ondotik auto karabana bat abiatuko da urriaren 14an Larrainetik (Zuberora), kantonamenduz kantonamendu ibiliko da 15 egunez eta urriaren 27an bururatuko da Baionan eginen den manifestaldiarekin.

LABURAREN

EAEko Gizarte Aurreikuspenetarako Erakundeek 1,415 bilioi pezetako ondarea dute

EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetarako Erakundeek euren hazkundearekin jarraitzen dute eta urte hasieratik ekainera 1,415 bilioi pezetako ondarea eta 646.070 bazkideko kopurua iritsi dute, atzo erakundeon federazioak jakinarazi zuten. Urtarriletik ekainera 35.306 lagun gehiagok eman duten izena erakunde horietan, iaz baino %15,5 gehiagok. Ondarearen hazkundea, berriz, %10,2koa izan da.

Frantziako ekonomiaren hazkunde aurreikuspena beherantz aldatu dute geldotzearengatik

Urteko bigarren hiruhilekoan BPGk %0,3ko hazkunde eskasa izan du, adituek espero baino txikiagoa, INSEE jakinarazi zuenez. Lehen hiruhilekoan Frantziako BPG %0,4 soilik hazi ostean, Estatistika institutuak urte amaierarako aurreikuspena hamarreneko bat edo bi jaitsi beharko dela adierazi du. Ekainean, 2001erako Frantziako hazkunde aurrispina %2,3an ezarri zen.

CAFek sei hilabetearen 943 milioi pezetako etekina lortu du

Beasaingo CAF enpresak iaz baino etekin gutxiago lortu du aurtengo lehen sei hilabeteetan. CAFek 943 milioiko etekinak izan ditu. Enpresa honek, Mexiko, Brasil eta Argentinan delegazioak izateaz gain, inbertsioetatik ere lortzen ditu etekinak. Joan den urtearekin alderatuta trenen fabrikazioaren negozioa %6 gutxitu zaio. CAFen kontratuen %62 esportazioak dira.

Rampgas enpresa italiarraren akzioak erosteko hitzarmena sinatu du Coprecik

Aretxabaletako Copreci enpresak, Rampgas italiarraren akzioak erosteko hitzarmena sinatu du. Coprecientzat, etxetresnen sektorean duen jardura nazioartekotzeko aurrerapauso bat da. Hurrengo lau urteetan 31.000 milioi pezetako salmentak gaintziteza espero dute. Copreci Aretxabaleta, Mexiko eta Txekiar Errepublikan egoteaz gain, Brasilen eta Asiako herrialde batean kokatuko dira.